



## UGTTIK BENETAKO EDUKIA ETA AKORDIO BORONDATEA DUTEN NEGOZIAZIO-MAHAIK ESKATZEN DITUGU

Imanol Pradales lehendakariarekin egindako bileraren harira, UGTtik helarazi diogu negoziazio-mahai eraginkorrak behar ditugula: edukiak dituztenak, erritmoarekin eta benetako konpromisoarekin. Ezin dugu onartu urte luzez sektore publikoan aritzen diren langileen eskubideak geldialdi eta murrizketei lotuta jarraitzea.

Argi hitz egin dugu: ez dugu mahai huts gehiagorik nahi, ez eta blokeatutako prozesurik ere, frustrazioa besterik sortzen ez dutenak. ACAIP-UGTko gure ordezkarien Lakuko itxialdia horren adibide garbia da. Ekintza horri esker, orain arte jorratu nahi izan ez diren gaiak mahaigaineratu dira. Baina ezin dugu onartu itxialdi edo greba-mehatxuekin bakarrik entzun gaitzatela. Eusko Jaurlaritzako sailen aldetik jarrera eraginkorragoa eta konprometituagoa eskatzen dugu.

Behin-behinekotasuna murrizteko neurriak hartzen jarraitzeko premia azpimarratu dugu, hamarkada bat baino gehiago eguneratu gabe daramaten lan-baldintzen akordioak berritzeko beharra, eta hizkuntza-profilak ez daitezela bihur langile profesionalen aurkako oztopo bidegabe.

Halaber, adierazi dugu ezin garela Estatuko Gobernuak ezarritako mugen menpean geratu. Lan-kontratu ereduarekin gertatzen den bezala administrazio publikoko langileentzat. Eusko Jaurlaritzak neurriak hartu eta tresna propioak erabil ditzake arazo hauei irtenbidea emateko, borondatea besterik ez da falta.

Exijitzen jarraituko dugu: benetako negoziazioa, akordioekin, aurrerapenekin eta errespetuarekin. Izan ere, zerbitzu publikoa defendatzen da egunez egun horri eusten dioten langileak zainduz.



## **DESDE UGT EXIGIMOS MESAS DE NEGOCIACIÓN CON CONTENIDO REAL Y VOLUNTAD DE ACUERDO**

En la reunión mantenida con el lehendakari Imanol Pradales, desde UGT le hemos trasladado la necesidad de contar con mesas de negociación resolutivas, con contenido, ritmo y compromiso real. No podemos seguir instaladas e instalados en un inmovilismo que, durante décadas, ha recortado derechos a las y los trabajadores del sector público vasco.

Hemos sido claras: no queremos más mesas vacías ni procesos bloqueados que solo generan frustración. El encierro de nuestros compañeros de ACAIP-UGT en Lakua es un ejemplo claro. Gracias a su acción, se ha conseguido poner sobre la mesa temas que hasta ahora ni se querían abordar. Pero no puede ser que tengamos que recurrir a encierros o amenazas de huelga para que nos escuchen. Reclamamos una actitud mucho más resolutive y comprometida por parte de las consejerías del Gobierno Vasco.

Hemos insistido en la urgencia de seguir adoptando medidas para reducir la temporalidad, en renovar acuerdos laborales que llevan más de diez años caducados, y en garantizar que los perfiles lingüísticos no se conviertan en una barrera injusta para quienes llevan años demostrando su profesionalidad en la administración.

También hemos planteado la necesidad de no quedarnos ancladas y anclados en los límites que marca el Gobierno central. El contrato relevo en la administración pública para el personal laboral es un ejemplo. Desde el Gobierno Vasco se pueden aplicar medidas y utilizar herramientas propias para dar respuesta a estos problemas, solo hace falta voluntad.

Seguiremos exigiendo una negociación real, con acuerdos, avances y respeto. Porque lo público se defiende cuidando a quienes lo sostienen cada día.